

«Ezin dira banatu Castelao politikaria eta artista»

*Xose Estevez historialariak 'Castelao
eta Galeuzka' hitzaldia eman zuen atzo*

Amagoia Mujika / Donostia

Galiziako historian eta pentsamenduan izan den pertsonarik garrantzitsuenetakoa da Castelao, Xose Estevezen ustez. Galiziaren subiranotasuna eta galiziarren eskubi-deak aldarrikatu zituen, horren zerbitzura jarritz bere pentsamendu politikoa eta sormena.


GALIZIAN baino ezagunagoa da gure artean Alfonso R. Castelao (1886-1950), eta hainbat arrazoi daude horretarako, atzo Xose Estevez historialari galiziarrek adierazi zuenez: «Alde batetik, Castelao aipatzen denean, alde artistikoa soilik azpimarratzen da Galizian, eta alde artistiko leunena gainera. Berak esaten zuen umorez eta ironiaz kontzientzietan kosk egin nahi zuela. Baina, bere ideologia eta mezua gordetzeko ahalegina egin dute politikariek. Galiziako PP saiatu da bere ideologia baztertzen eta ezkutatzen. Komunikabide gehienek ere, botere politikoaren parte izanik, ez dute bere lana hedatu. Hamaika adibide aipa daitezke Castelaoren lanaren

oihartzun eskasaz ohartzeko».

Euskal Herrian, aldiz, galiziar komunitateak Castelaoren pentsamendua plazaratzeko lan handia egin du Estevezek dioenez, bere obrak ezagutaraziz. «Euskaraz ere ia bere obra osoa itzulita dago».

Polifazetikoa

Castelaok arlo asko landu zituen. Idazle, marrazkilari eta politikari lanak egin zituen, medikuntza alde batera utzita. Hala ere, Estevezen ustez, ezin dira landutako arlo ugariak bereizi: «Azken batean ideia baten zerbitzura ezarri zituen idazle, marrazkilari eta politikari gisara egindako lanak. Galegoa galiziarren hizkuntza zela defendatuz, kari-



Xose Estevez historialari galiziarra, atzo, Donostiako Koldo Mitxelena.

Pentsalari baztertua

■ ■ ■ «Umorez eta ironiaz kontzientzietan kosk egin nahi zuela zioen, baina politikariek bere ideologia gorde eta baztertu egin dute»

katura, umorea, ironia eta satira erabiliz, Galiziarako subiranotasuna aldarrikatzen zuen; herritar xumeen arazoak salatzen zituen, eta

Gaurkotasuna

■ ■ ■ «Galizia ez da asko aldatu; arazo berak dira nagusi, eta badirudi nazio kontzientzia esnatzen ari dela. Castelaoren ideiak oso gaurkoak dira»

jauntxokeriari leporatzen zion arazo horien ardura». Arazo horiek, gainera, ez ziren galiziarrenak soilik: «Castelao Galiziatik abiatu zen, gizaki unibertsalaren askatasuna eta berezko nortasuna izateko eskubidea aldarrikatzeko».

Castelaoren pentsamendua oso gaurkoa dela dio Estevezek: «Galizia ez da asko aldatu, funtsean arazo berak dira nagusi, eta orain badirudi nazio kontzientzia esnatzen ari dela. Haren abangoardiako ideiek ez dute gaurkotatzen sunik galdu».

Galeuzkari buruz mintzo

Galiziar nazionalismoaren ordezkari gisara Castelaok Euskal Herriko eta Kataluniako nazionalismoekin izandako harremanaz eta egindako lanaz mintzatu zen atzo Donostian Xose Estevez. *Castelao eta Galeuzka* hitzaldian, Galeuzkan —galiziarren, euskaldunen eta katalanen artean sortutako mugimenduan— Castelaok egindako lana ekarri zuen gogora, haren pentsamendua eta izaera.

«Castelao 1933an sartu zen Galeuzkan, Hiruko Aliantza izena utzi eta Galeuzka izena eman ziotene-

Galeuzka

■ ■ ■ «Estrategia politikoaren parte zuen Galeuzka. Katalunia, Galizia eta Euskal Herria batu nahi zituen botere zentralari kontra egiteko»

nean mugimenduari. Erbestera joan zenean hasi zen aktiboki lanean bertan, Buenos Airesen zela. Mugimendu horren bultzatzaile sutsuenetakoa izan zen», adierazi zuen Estevezek.

Arrazoi nagusi bat izan zuen Castelaok Galeuzkaren aldeko apustua egiteko, Estevezek dioenez: «Bere estrategia politikoaren parte zen. Aliatuek frankismoa suntsitzea lortzen bazuten, hiru nazioen bateratzea proposatzen zuen botere zentral espainiarrarekin amaitzeko, eta nazio iberikoen konfederazioa sortu nahi zuen. Nazio bakoitzak egokiak iruditzen zitzaizkion eskumenak parlamentu zentralari utziko zizkion, baina nazioek askatasuna izango zuten herritarren borondatezko jarduerara bideratzeko. Nazioek, banandu nahi izanez gero, eskubidea izango zuten, erreferendumen prozesua jarraituz.

Baina aliatuek ez zuten Frankismoa suntsitu, eta faxismoa zabaldu zen. «Hainbat arrazoiengatik Galeuzka sekula ez zen sinatu, eta sinaturik ere ez zuen indarririk izango Francorekin».

Xose Estevezek esan zuenez, «Castelao, Rosalia de Castrorekin batera, galiziar historiako pertsona garrantzitsuenak izan da».

azken zenbakia
JAKiN 118

Gai nagusia

Liburutegi Nazionalea

ZER-NOLAKO LIBURUTEGI NAZIONALA?

LIBURUTEGI POLITIKA

LIBURUTEGIEN EGOERA

EUSKARA LIBURUTEGI KATALOGOETAN

LIBURUTEGIAK ETA INTERNET

... eta aurtengo kolaboratzaileak

JOSEBA BALERDI • HARKAITZ CANO
• BEGOÑA DEL TESO • LUIS FERNANDEZ

kultura, literatura, ikuskizunak, eta komunikazioaren inguruko gertakariak komentatuz

egin zaitez harpidedun

Tolosa hiribidea, 103-1.C - 20018 DONOSTIA -Tel.: 943. 21.80.92 - Faxe: 943. 21.82.07 - jakin@jalgi.com